

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA OSASUN SAILA

3433

AGINDUA, 2020ko abuztuaren 24koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena, 2020ko nekazaritza-kanpainetarako sasoiko langileen kontratazioa erantzukizunez adierazteko betebeharra ezartzen duena, COVID-19 pandemiak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko.

COVID-19 gaitza zabaltzeak eragin duen osasun-larrialdiaren ondorioz, gobernuek neurriak hartu behar izan dituzte kutsadura-boladaren aurka borrokatzeko eta eragiten ari den ondorio ekonomiko eta sozialak arintzeko.

Nekazaritzako produktuak biltzeko jarduerak eta nekazaritzako aldi baterako langile ugari laster Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat eremu geografikotan egoteak prebentzio-neurri espezifikoak hartzera behartzen ditu sektoreko enpresaburuak, kutsadura-arriskua murrizteko eta, horrela, kanpainen garapen normala bermatzeko.

Gaur egun, sasoiko lanarekin lotutako nekazaritza-jardueren ondorioz hainbat eta hainbat gaitzaren agerraldi gertatzen ari direla ikusten da; horregatik, beharrezkoa da prebentzio-neurri eustea eta zabaltzea, COVID-19ari eraginkortasun handiagoz aurre egiteko, eta ezinbestekoa da nekazaritzako aldi baterako lan-eskariaren aurreikuspenak xehetasun handiagoz ezagutzea.

Era berean, ezinbestekoa da kutsatuta dauden edo kutsatuta egon daitezkeen langileak bakarrezko eremu egokiak izatea, eta beharrezkoa da enpresek eta botere publikoek azpiegitura horiek prestatzeko dituzten erantzukizunak indartzea eta argitzea.

Egoera hori kontuan izaki eta mahats-bilketako eta patatako kanpainak gertu daudenez, beharrezkoa izan da nekazaritzako ustiategietarako segurtasun higieniko-sanitarioaren arloan dagoen protokoloa hobetu eta egokitu duen jarduera-protokolo bat diseinatzea. Protokolo horretan zehazten dira sasoiko langileak kontratatutako dituzten nekazaritzako ustiategietan eta haiei emandako ostatuetan ezarri beharreko jardunbide egokiak, COVID-19a langileen artean kutsatzea eta infektatzea prebenitzeko.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuan xedatutakoaren arabera, sail horri dagozkio nekazaritzako ekoizpenak hobetzeko eskumenak, bai eta nekazaritzako elikagaien sektorea eta horri lotutako zerbitzuak arautzekoak ere.

Osasun Sailari dagozkio arlo hauetako eskumenak: informazio, zaintza eta esku-hartze epidemiologikoa; zaintza epidemiologikoa planifikatzea, koordinatzea eta kudeatzea eta gaixotasun transmitigarrien eta agerraldi epidemikoen kontrola, Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 80/2017 Dekretua aplikatuta.

Horregatik guztiagatik, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta Osasun Sailak batera ematen dute agindu hau, bi dekretuetan esleitutako eskumenekin bat etorrira.

Azaldutako arrazoiengatik, honako hau

EBAZTEN DUGU:

Lehenengoa.– Xedea.

Agindu honen xedea da 2020ko nekazaritza-kanpainetan indarrean dauden kontratazioak eta sasoiko langileak kontratatzeke aurreikuspenak adierazteko betebeharra ezartzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuz, COVID-19 pandemiak Euskal Autonomia Erkidegoan eragindako osasun-krisiari aurre egiteko.

Bigarrena.– Erantzukizunpeko adierazpena.

1.– 2020ko nekazaritza-kanpainetan sasoiko langileak enplegatuta dituzten edo enplegatuko dituzten nekazaritza-ustategiak, zuzenean nahiz enpresa bitartekarien bitartez kontratatzen badi-tuzte, behartuta daude erantzukizunpeko adierazpenean agertzen diren datuak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari jakinaraztera (eredua eranskin gisa doa).

2.– Administrazioak adierazpen horietan aurkeztutako datuak eta aurreikuspenak egiazkoak direla egiaztatu ahal izango du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren datu-ba-seeekin eta beste administrazio batzuekin datuak erkatuz.

Hirugarrena.– Aurkezteko epea.

2020ko nekazaritza-kanpainetako sasoiko langileen egungo enpleguari eta enplegu estimatuari buruzko erantzukizunpeko adierazpenak, bai kontratazio zuzenei buruzkoak, bai bitarteko enpre-sen bidez egindakoei buruzkoak, gehienez ere zazpi egun baliioduneko epean jakinarazi beharko dira, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aldaketaren bat gertatuz gero, beste erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, aurretik aurkeztutako datuak eguneratzeko.

Laugarrena.– Aurkezteko modua.

1.– 2020ko nekazaritza-kanpainetan sasoiko langileak enplegatzen dituen edo enplegatu behar dituen pertsona pertsona fisikoa denean, adierazpena aurrez aurre edo elektronikoki aurkeztu ahal izango du.

2.– 2020ko nekazaritza-kanpainetan sasoiko langileak enplegatzen dituen edo enplegatu behar dituen pertsona administrazioarekin harreman elektronikoa izatera behartuta dagoenean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, behartuta egongo da adminis-trazioarekiko harreman elektronikoa izatera, eta kanal elektronikoen bidez soilik izapidetu ahal izango da.

3.– Aurreko apartatuetan adierazitakoaren arabera, aurrez aurre edo bide elektronikoen bidez aurkeztuko da, agindu honen eranskin gisa doan ereduaren arabera. Eredu hori eskuragarri egongo da web-helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1107701> (lehen komunikaziorako); <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1107702> (datuak aldatzeko/eguneratzeko, hala badagokio).

– Aurrez aurre: adierazpenak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua xedatzen dituen tokietariko edozeinetan, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin. Eskatzaileak postetxe batean aurkeztu badu

eskabidea, gutun-azal irekian egin beharko du, postako langileek zigila dezaten eta data ezar diezaioten.

– Modu elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1107701> (lehen komunikaziorako); <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1107702> (datuak aldatzeko/eguneratzeko, hala badagokio). Kasu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan identifikazio eta sinadura elektronikorako onartutako bitartekoak erabili beharko dira, helbide honetan eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

4.– Hala badagokio, adierazpenaren osteko izapideak, bide elektronikoz, helbide honetan egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Bosgarrena.– Osasun-kontrola eta -jarraipena.

Herritarren osasuna babesteko, Osasun Sailak sasoiko langileen osasun-kontrolerako eta -jarraipenerako jarduerak ezarriko ditu 2020ko nekazaritza-kanpainetan, eta, horretarako, egokitzat jotzen dituen probak zehaztuko ditu. Halaber, birusak kutsatutako pertsonak eta haien kontaktu estuak bakartzeko neurri egokiak hartzeaz arduratuko da. Era berean, laguntza emango dio Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari, toki- eta foru-erakundeekin lankidetzan, COVID-19ak jotako pertsonak edo kutsatutako pertsonekin harreman estuan egon diren eta berrogeialdia bete behar duten pertsonak bakartzeko espazioak gaitzeko.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta 2020ko nekazaritza-kanpainak amaitu arte egongo da indarrean.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako edo Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira epeak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 24a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Osasuneko sailburua,
MIREN NEKANE MURGA EIZAGAECHEVARRIA.

ERANSKINA

2020KO DENBORALDIKO NEKAZARITZA-KANPAINETAKO SASOIKO LANGILEEI BURUZKO
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

(Sasoiko langileak zuzenean nahiz enpresa bitartekarien bidez kontratatzen dituzten nekazaritza-ustiategiek bete beharrekoa).

Ustiategiko titularren datuak.

IFZ.	IZENA edo SOZIJETATE-IZENA:	
LEHEN ABIZENA:		BIGARREN ABIZENA:

Ordezkaritza izanez gero, ordezkariaren datuak.

IFZ:	IZENA:	
LEHEN ABIZENA:		BIGARREN ABIZENA:

Jakinarazpenetarako helbidea.

HELBIDEA:		UDALERRIA:
POSTA-KODEA:	LURRALDE HISTORIKOA:	
TELEFONOA:	HELBIDE ELEKTRONIKOA:	

2020ko nekazaritza-kanpainetarako sasoiko langileen kontratazioa erantzukizunez adierazteko betebeharra ezartzen duen Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegituretako sailburuaren eta Osasunerako sailburuaren 2020ko abuztuaren 24ko Aginduaren ondorioetarako, COVID-19 pandemiak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**1.– Kontratazioa egin dut (markatu dagokiona):**

- Zuzenean
- Enpresa bitartekari baten bitartez

BITARTEKO ENPRESAREN datuak (bitarteko enpresa bidez kontratatzen bada bakarrik bete).

IFZ:	IZENA edo SOZIJETATE-IZENA:		
LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK:			
IZENA:	LEHEN ABIZENA:	BIGARREN ABIZENA:	
HELBIDEA:		UDALERRIA:	
POSTA-KODEA:	LURRALDE HISTORIKOA EDO PROBINTZIA:		
TELEFONOA:	HELBIDE ELEKTRONIKOA:		

2.– 2020ko nekazaritza-kanpainetan, honako sasoiko langile hauek daude kontratatuta edo kontratatzea aurreikusita, egutegi honen arabera: (ZUZENEKO KONTRATAZIORAKO NAHIZ ENPRESA BITARTEKARIEN BIDEZ KONTRATATZEKO).

Hasteko aurreikusitako eguna	Egun kopurua, gutxi gorabehera	Pertsona-kopurua	Lana egiten den udalerria	Ostatua dagoen udalerria

3.– Sasoiko langile-koadrila edo -koadrilak partekatzen ditut (aukeratu dagokion aukera).

Bai

Ez

4.– Kontratatuta DAUKAT/EZ DAUKAT (markatu dagokiona) laneko arriskuen prebentziorako zerbitzu bat.

Laneko arriskuen prebentzio-zerbitzua ematen duen enpresaren datuak:

IFZ:	IZENA edo SOZIJETATE-IZENA:		
LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK			
IZENA:	LEHEN ABIZENA:	BIGARREN ABIZENA:	
HELBIDEA:		UDALERRIA:	
POSTA-KODEA:	LURRALDE HISTORIKOA EDO PROBINTZIA:		
TELEFONOA:	HELBIDE ELEKTRONIKOA:		

5.– Konpromisoa hartzen dut Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak formalki eska dezakeen informazio osagarria emateko.

..... (e)n, (e)ko aren (e)(a)n.

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko oinarritzko informazioa:

Arduraduna: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.

Helburua: sasoiko langileei ostatu ematera bideratutako higiezinak eta ekipamenduak inskribatzea eta nekazaritzako sasoiko lanari buruzko datuen tratamendu estatistikoa egitea.

Legitimazioa: aplikatzekoak diren lege-betebeharrak betetzeko behar den tratamendua. 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena. 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

Hauei zuzenduta: EAEko administrazioiko beste organo batzuk. Estatistika ofizialen zerbitzuak. Daturik ez zaio inori lagako, legez nahitaezkoa ez bada.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko, baita bestelako eskubideak ere, informazio osagarrian azaltzen den bezala.

Informazio gehigarria: gure webgune honetan kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/datuak-babesteko-ordezkarria/hasiera/>

Hori guztia, betiere, honako xedapen hauetan ezarritakoa betetzeko: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.